

KOSTUEN EGITURA

Hasieran web gune batean inbertituko dugu, bezeroei erakargarria iruditzeko, eta horretarako aditu bat kontratatuko dugu **300€-tik 1000€-ra** arte. Gero berak urtero web gunea mantenduko du. Hortik, gure bezeroak bidaiak kontratatu ahalko dute, beraz ez dugu lokalik alokatu edo erosi; baina, geroago, bezero eta etekin gehiago lortzean, lokal bat erosi edo alokatuko genuke.

Bestalde, hasiera batean bakarrik Espainia, Frantzia eta Portugalera joateko bidaiak eskainiko ditugu, turismo-gidari batekin. Izan ere, horiek dira Espainiatik hurbilen dauden herrialdeak, eta, horrela, bidaia merkeak eskaini ditzakegu bezeroentzat eta inbertitzeko merkeak guretzat. Gero, irabaziak lortzen ditugun heinean, zabaldu egingo gara, eta leku eta bidaia gehiago eskainiko ditugu, hala nola gurutzaldiak eta munduko beste puntarako bidaiak. Hori dena dela eta, kontuan hartzen bus batzuekin eta Uberrekin lan egingo dugula eta herrialde horiek gertu daudela, **200€-600€** izango litzateke. Baina, geroago, enpresak etekin eta mozkin gehiago izaten duenean, beste herrialde batzuetara joango ginateke, adibidez Alemania, Mexiko eta Txina.

Beste aldetik, gure kostuak 7 ataletan banatuko ditugu. Lehenik eta behin, 3.000€ inbertituko ditugu merkatu-ikerketan eta negozio-planeari, hau da, aholkulari bat kontratatzen eta gure eremu objektiboaren eskaria ebaluatzen. Gero, 2.500€ bideratuko ditugu legezko erregistroan eta turismo-lizentzietan, herrialde askotan bidaia-agentziek berariazko baimenak behar dituztelako; eta aseguruetan, 500 € - 1.500€ urtean. Bestalde, 7.000€ inbertituko ditugu azpiegitura digitalean, hau da, web profesional baten eta erreserba-plataformen eta kudeaketa-sistemen (CRM) sorreran. Ondoren, 5.000€ bideratuko ditugu marketinera eta sustapenera, hau da, sare sozialetako kanpainak, iragarki digitalak, markaren logotipoa etab. egitera. Ondoren, 7.000€ inbertituko ditugu hornitzaileen sarean, beste modu batean esanda, jatetxeekin, upategiekin eta tokiko gidekin akordioak sortzeko, esperientzia gastronomikoetan kupo aurreratuak erreserbatzeko eta dena eskusiboa eta kalitatezkoa dela ziurtatzeko. Gero, hasteko, 780€ emango dizkiegu urtean taldeari eta langileei; adibidez, nutrizionistak deitzen ditugun bakoitzean 65€ emango dizkiegu haien zerbitzuengatik. Azkenik, 50.000€ inbertituko ditugu hasierako eragiketen funtsean. Funtse horrek barne hartzen du aintzatespen-bidaien kostuak estaltzea, lehen hilabeteetako destinoen kalitatea eta gastu arruntak bermatzeko, hala nola publizitate jarraitua eta pertsonala. Guztira, 75.280€ izango lirateke, baina 80.000€ eskatuko ditugu edozein oztopo gertatzen bada ere.

Garraiobideek aldakortasun handia dute, eta kostu finkoak ere dira, beti izango ditugulako.

Uber erabiliz, distantziaren arabera **8-50€** bitarteko kostuak izan daitezke ibilbide bakoitzeko. Aireko garraioan, **hegaldi nazionalek 50-150€** arteko kostua dute

turista-klasean, eta **300-600€** business klasean. **Nazioarteko hegaldiak 400-900€** balio dute turista-klasean, eta **1.500-4.000€** business-ean. Itsas garraioan, **gurutzaldiek** motaren arabera **600-8000€** arteko kostua dute pertsonako asteko. 4 izarreko hotelen **ostatuak kostuak 80-150€** arteko prezioa dute gau bakoitzeko **logela bakoitzetarako**, eta **60-100€** artekoa **banakakoetarako**. **Landetxeek 120-300€** arteko kostua dute gau bakoitzeko.

Kostu finkoak	Bulego alokairua	Bulego fisikoak	Hileko	300-1.000 €/hilean
	Administrazioko soldadak	Zuzenean inplikatu ez dauden langileak	Hileko	600-2.500 €/hilean langile bakoitzeko
	Software lizentziak	Erreserba- softwarea, CRM	Hileko/ urtekoak	60-300 €/hilean
	Hasierako brandinga	Logotipoaren diseinua, identitate bisuala	Kostu bakarra	600-2.000 €

Gainera kalitatezko menuak eskaintzen ditugu, **30-80€** bitartekoak jatetxeetan eta **100-250€** goi-mailakoetan. Ardo-dastatzeek, sukaldaritza-tailerrek eta upeltegietara egindako **bisitek 20-150€** arteko prezioa dute. Gure **gidari espezializatuek 150-300€** arteko kostua ekartzen dute lanaldi bakoitzeko. **Sustapen-materialek**, hala nola ibilbideak eta mapak, **5-30€** bitarteko kostua dute pertsonako.

Marketina funtsezkoa da bezeroak erakartzeko. Sare sozialetako **publizitate digitalak**, hala nola Meta, Instagram eta TikTok, hilean **300 eta 1.500€** arteko kostua du, kanpainen irismenaren arabera. **Bilatzaileetako iragarkiek**, Google Ads bezalakoek, **0,50 eta 2€** arteko kostua dute klik bakoitzeko, eta **hileko aurrekontua 500-2.000€-koa** da. Edukiaren sorrerak ere inbertsioa eskatzen du: **argazkigintza** eta **bideo profesionalak 300-1.000€** artekoak izan daitezke, eta **sustapen-bideoak 500-2.000€** bitartean editatu behar dira. Beste aldetik, **azpiegitura digitalak** ere kostuak dakartza. Webgunearen garapenak **1.500-3.000€** arteko kostua du, domeinuak **10-50€** urtean, eta **hostingak 100-500€**. **Mantentze-lanek**, kanpora ateraz gero, **50-300€** arteko kostua dute hilean. Erreserbak kudeatzeko softwareak **lizentzia** bat du, hilean **50-300€** artekoa, eta **integrazio gehigarriek urtean 100-500€** arteko kostua dute.

Administrazio-kostuetan bulegoko gastuak sartzen dira. **Alokairuak 300-1.000€** arteko kostua izan dezake hilean, eta **elektrizitate, ura eta Internetek 100-300€**. **Administrazio-langileen soldatak 600-1.000€** dira hilean **lanaldi erdian**, eta **1.200-2.500€ lanaldi osoan**. Kontabilitate- eta fakturazio-zerbitzuak **20-100€** artekoak dira softwarea erabiliz gero, edo 100-300 € kanpora ateraz gero. Aholkularitza kostu esanguratsua da. **Lege-aholkularitzak 200-1.000€** arteko kostua izan dezake proiektu bakoitzeko, edo **100-500 €** artekoa hilean. Aholkularitza **fiskalak 300-1.000€** arteko kostua du **hiruhileko**, eta **estrategikoa 100-500 € orduko**. **Marketineko plan estrategikoa 500-3.000€** artekoak izan daitezke, eta **negozio-auditoretzek 1.000-5.000€** arteko kostua dute.

Kostu finkoak	Bulego alokairua	Bulego fisikoak	Hileko	300-1.000 €/hilean
	Administrazioko soldatak	Zuzenean inplikatu ez dauden langileak	Hileko	600-2.500 €/hilean langile bakoitzeko
	Software lizentziak	Erreserba- softwarea, CRM	Hileko/ urtekoa	50-300 €/hilean
	Hasierako brandinga	Logotipoaren diseinua, identitate bisuala	Kostu bakarra	500-2.000 €

Kostu sozialak enpresaren langileekin dituen betebeharrekin lotuta daude. Gizarte Segurantzarako soldata gordinaren **%30-40** ordaintzen dugu. Joaten garen **tokiko langileen soldatak 100-300€** artekoak izan daitezke. Langileen **onurak**, hala nola aseguruia edo prestakuntza, urteko soldataren **%5-10 gehigarri** dira. **Prestakuntzak 200-1.000€** arteko kostua du langile bakoitzeko. Ekimen sozialak komunitateari mesede egiten diote. Tokiko ekoizleekin lankidetzak **500-2.000€** balio dezake proiektu bakoitzeko.

Kostu sozialak	Langileen Gizarte Segurantza	Kotizazioak	Hileko	200-500 €/hilean langile bakoitzeko
	Gidatek edo tokiko langileak kontratatzea	Tokiko profesionalentzako soldata bidezkoak	Jardueraren arabera	150-300 €/egun
	Lan-onurak	Bonuek, oporrek, aseguruak	Hilean behin/ urtean behin	Aldakorra

Ingurumen-kostuek jasangarritasuna sustatzeko ekintzak biltzen dituzte. **Isurien konpentsazioak 5-20€** balio du ibilbide bakoitzeko. **Jasangarritasuneko hornitzaileak** aukeratzeak %5-15 gainkostua

izan dezake. **Material berrerabilgarriak erabiltzeak 0,50-2€** arteko kostua gehitzen du bezero bakoitzeko. **Jasangarritasun-proiektuetan parte hartzeak 500-3.000€** kostu dezake proiektu bakoitzeko. Praktika jasangarrien prestakuntzak **200-1.000€** balio du langile bakoitzeko urtean.

Ingurumen-kostuak	Karbono-aztaren konpentsazioa	Basoberritzeko eta emisioak murrizteko programak	Bidaia bakoitzeko	5-50 €/bidaia
	Material jasangarriak erabiltzea	Souvenir ekologikoak, ibilbide digitalak	Bezero bakoitzeko	5-20 €/pertsona
	Garraio ekologikoa	Trenak, ibilgailu elektrikoak	Ibilbidearen erabera	20-200 €/bidaia